

Gure ahalmena ahalik eta ondoen aprobetxatuz: Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua finkatzea

Bukaresteko komunikatua
Azken bertsioa

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko herrialdeetatik 47tan Goi-mailako Hezkuntzaren ardura duten ministroak Bukaresten bildu ziren 2012ko apirilaren 26an eta 27an, Boloniako Prozesuaren lorpenak aztertzeko eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrurako lehentasunen gaineko akordioak ezartzeko. (33333)

Etorkizunerako goi-mailako hezkuntzan inbertituz

Europak bizi duen krisi ekonomiko eta finantzarioa gizartean kalteak eragiten ari da; goi-mailako hezkuntzaren esparruan, krisiak finantzaketa egokian eragiten du, eta horrenbestez zalantza sortzen du unibertsitateko graduatuen lan-etorkizunean.

Goi-mailako hezkuntza irtenbide bat da aurrez aurre dauzkagun zailtasunen aurrean, goi-mailako hezkuntzaren sistema sendo eta fidagarri batek jakintzaren zutabeak ezartzen dituelako gizarte oparoetan. Orain inoiz baino gehiago, goi-mailako hezkuntza gure ahaleginen erdian jarri behar dugu, krisia gainditzeko bidean.

Hortik abiatuta, konpromiso batzuk hartu ziren goi-mailako hezkuntzaren finantzaketa publikoa areagotzeko, eta beste iturri egoki batzuk zehaztu ziren, gure etorkizunerako inbertsio bat osatuko luketenak. Erakundeei laguntzeko konpromisoak hartu ziren, erakundeetatik graduatu sortzaile, berritzaile, arduratsu eta kritikoak atera daitezen, hazkunde ekonomikorako eta gure demokrazien garapen jasangarrirako ezinbestekoak diren heinean, eta gazteen artean langabezia-tasak murrizteko lan-ildoak ezarri ziren.

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua, lehen, orain eta etorkizunean

Boloniako erreformek Europako goi-mailako hezkuntzaren itxura aldatu zuten Europan, hezkuntza-erakundeen eta haien langile eta ikasleen inplikazioari eta ardurari esker. Gaur egun, Europako goi-mailako hezkuntzaren egiturak bateragarriagoak eta konparagarriagoak dira. Kalitatea ziurtatzeko sistemak lagungarri dira konfiantza sortzeko; goi-mailako hezkuntzaren titulazioek aitortza-maila handiagoa dute nazioartean, eta parte-hartzeak gora egin du goi-mailako hezkuntzan. Ikasleek gero eta hezkuntza-aukera gehiago dauzkate eskura, eta

mugikortasuna handituz doa: Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua integratuta dagoela esan dezakegu.

Nolanahi ere, Boloniako Prozesuaren ezarpenari buruzko txostenak erakusten duenez, esparru hori sendotzeko ahaleginetan jarraitu behar dugu: gure politiken arteko koherentziari eutsi behar diogu, trantsizio honetan honako hauek sustatuz, bereziki: hiru urteko zikloen sistema, ECTS kredituen erabilera, titulazioen osagarriak ematea, kalitatearen ziurtapena handitzea, eta egiaztapen-esparruak interpretatzea, ikaskuntzaren emaitzak definitu eta ebaluatzea barne.

Honako helburu hauek ezarri ziren: pertsona guztiei kalitatezko goi-mailako hezkuntza eskaintzea, graduatuen enplegagarritasuna handitzea eta mugikortasuna indartzea, ikaskuntza hobetzeko helburuarekin.

Xede horretarako ekintzak aurrera eramateko etengabeko ahaleginak egingo dira, praktika nazionalak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren helburu eta politiketara doitzeko, eta, horrez gain, ahalegin handiagoen premian dauden eremuak indartuko dira. 2012tik 2015era arteko aldirako, goi-mailako hezkuntzaren erakundeei eta inplikaturako alderdiei laguntzeko ahaleginak areagotuko dira, aldaketa esanguratsuak ahalbidetzeko eta Bolonian ezarritako ekintzak neurri handiagoan zabaltzeko.

Pertsona guztiei kalitatezko goi-mailako hezkuntza ematea

Goi-mailako hezkuntzan sartzeko **bidea erraztea** beharrezkoa da ekonomiak eta gizarteak aurrera egin dezaten. Neurri nazionalak hartuko dira kalitatezko goi-mailako hezkuntzan sartzeko bidea errazteko. Ahaleginak egingo dira lorpen-tasak lortzeko eta goi-mailako hezkuntzak pixkanaka aurrera egin dezan ziurtatzeko Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko herrialdeetan.

Goi-mailako hezkuntzaren erakundeetan sartzen eta graduatzen diren ikasleak Europako biztanleriaren aniztasunaren isla izango dira. Goi-mailako hezkuntzaren dimentsio soziala garatzeko ahaleginak areagotuko dira, baita despaketotasunak murrizteko eta gutxiengoan eskura laguntza, aholkularitza eta orientazioa jartzeko ahaleginak ere, eta ibilbide malguak edo sartzeko bide alternatiboak ere eskainiko dira, alde zuzeneko ikaskuntza aitortuz adibidez. Berdinen arteko ikaskuntza sustatuko da dimentsio sozialetik abiatuta, eta alderdi horren garapena monitorizatzeko ahaleginak egingo dira.

Goi-mailako hezkuntzan **ikasleentzako ikaskuntza** sustatzearen aldeko konpromisoa azpimarratu zen beste behin, ikasleek ikaskuntzan parte-hartze aktiboa izatea dakarten metodologia didaktikoetan oinarrituta. Erakunde, ikasle eta langileekin batera, ikasteko ingurune inspiratzaile eta egoki bat sortzeko konpromisoa hartu da.

Goi-mailako hezkuntzak prozesu ireki bat osatu behar du, non ikasleek independentzia intelektuala eta pertsonala garatuko duten ikasketen berezko diziplina eta trebetasunez jabetzeaz gainera. Ikaskuntza akademikoaren eta ikerketaren bitartez, ikasleek hainbat

trebetasun jasoko dituzte, egoerak balioesteko eta soluzioak pentsamendu kritikoan oinarritzeko baliagarri.

Kalitatea ziurtatzea funtsezkoa da konfiantza sortzeko eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren barruko eskaintzak erakargarriago egiteko, nazioz gaindiko hezkuntza adibidez. Kalitatea ziurtatzean inplikazio publikoari eusteko konpromisoa hartu da, baita ziurtatze horretan haren garapenean inplikaturako alde guztiak sartzeko konpromisoa ere. ENQA, ESU, EUA eta EURASHE (E4 taldea) erakundeek txostenak aurkeztu dituzte, kalitatea bermatzearen alorrean Europan indarrean dauden arau eta jarraibideen (ESG) ezarpenari eta aplikazioari buruzkoak. ESG irizpideak berrikusiko dira, haien argitasuna, aplikagarritasuna, erabilgarritasuna eta norainokoa hobetzeko. Berrikuspen hori egingo da E4 Lantaldeak Education International, BUSINESSEUROPE eta EQAR erakundeekin elkarlanean hasiera batean egindako proposamen batetik abiatuta, eta Boloniako Jarraipen Taldeari helaraziko zaio.

EQAR erregistroaren kanpo-ebaluazioak harrera ona izan du, eta kalitatea ziurtatzeko agentziei erregistro horretan inskribatzeko deia egiten zaie, bertan erregistratutako agentziek Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren barruan jarduteko aukera izango dutelako, beren eskakizun nazionalak betez. Zehazkiago, EQAR erregistroan erregistratutako agentziek baterako programa eta gradu bikoitzei dagokienez hartzen dituzten erabakiak aitortu egingo dira.

Goi-mailako hezkuntzaren aldeko konpromisoa berretsi zen, eta goi-mailako hezkuntzaren gobernantzari eta finantzaketa lortzeari buruz hitz egiten hasi beharra dagoela onartu zen. Gure helburu komunak lortzeko diru-sarrera iturri berriak sortu beharra onartu da. Areago, goi-mailako hezkuntzaren erakundeentzat administrazio- eta gobernantza-egitura eraginkorragoak garatu beharra azpimarratu zen. Gainera, ikasleak eta langileak gobernu-egituretako maila guztietan sar daitezela bultzatzeko konpromisoak ezarri ziren, eta askatasun akademikoari atxikitzen zaizkion goi-mailako hezkuntzaren erakunde autonomo eta arduratsuentzako babesa berretsi zen.

Enplegarritasuna hobetzea Europako beharrei erantzuna emateko

Unibertsitate-titulazio baten jabe direnek diziplina anitzeko konpetentzia transbertsal eta berritzaileez ere jabetu beharko dute, baita jakintza espezifikoko eta eguneratuaren jabe ere, gizartearen eta lan-merkatuaren beharrei aurre egiteko. Horregatik, tituludun horien ibilbide profesionalean **enplegarritasuna** eta garapen pertsonal eta profesionala hobetzeko konpromisoa hartu zen. Eta helburu hori beteko dela espero da, eta horretarako merkatu profesionalaren, ikasleen eta goi-mailako hezkuntzaren erakundeen arteko lankidetzak hobetu beharko da, nagusiki ekintzailatza eta ikerketarako ikasketak-programa berritzaileak garatuz. Etengabe ikasteko prozesua faktore garrantzitsuenetako bat da lan-merkatuaren premia aldakorren aurrean, eta goi-mailako hezkuntzaren erakundeek funtsezko zeregina betetzen dute jakintzaren transferentzian eta toki-garapena indartzean, konpetentzien etengabeko garapenarekin eta jakintza-aliantzak sendotzearekin batera.

Gure gizarteak goi-mailako hezkuntzaren erakundeen beharra dauka, berrikuntzan eta garapen jasangarrian lagun dezaten, eta, horrez gain, ikerketaren, irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren arteko harremana maila guztietan sendo dezaten. Lehentasunetan eta gorantz doazen diziplinetan izandako aldaketak ikasketa-programetan jaso behar dira, eta ikerketak irakaskuntza eta ikaskuntzaren euskarri izan behar du. Ildo horretan, zenbait doktorego-programari laguntza emango zaie.

“Salzburgoko gomendioak II”² eta Doktorego Berritzailerako Printzipioak³ kontuan hartuta, Hirugarren Zikloan kalitatea, enplegarritasuna eta mugikortasuna sustatzeko ahaleginak egingo dira, doktorego-ikastaroak egiten ari direnen prestakuntza eta ikaskuntza funtsezkoak direlako Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren eta Europako Ikerketa Esparruaren arteko loturan. Doktorego-prestakuntza ez ezik, kalitatearen bigarren zikloko programak ere ezinbestekoak dira irakaskuntzaren, ikaskuntzaren eta ikerketaren arteko harremanaren arrakasta bermatzeko.

Aniztasuna errespetatzeko eta ulermena errazteko, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko master-programetarako printzipio komunak lortu behar dira, alde zureko lanak kontuan hartuz⁴.

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua sendotzeko, **ikaskuntzaren emaitzak** ongi inplementatu behar dira, eta emaitza horiek ulertzea, garatzea eta praktikoki erabiltzea funtsezkoa izango da ECTS kredituen, titulurako osagarriaren aitortzaren, kualifikazio-esparruen, eta kalitatea ziurtatzearen arrakasta bermatzeko, horiek guztiak elkarren mendekoak izanik. Beharrezkoa da erakundeek kredituak ikaskuntzaren emaitzei eta ikasleen lan-kargari lotzea, eta ikaskuntzaren emaitzen lorpena ebaluazio-prozeduretan biltzea. Ziurtatu beharko da ECTS⁵ kredituen Erabiltzailearen Gidak behar bezala jasotzen duela ikaskuntzaren emaitzen inguruan eta alde zureko ikasketen aitortzaren inguruan egiten ari den lanaren egoera.

Kualifikazio-esparruen garapenean izandako aurrerapenak harrena ona izan du, esparru horiek gardentasuna hobetzen dutelako eta goi-mailako hezkuntzaren sistemak irekiagoak eta malguagoak izatea ahalbidetuko dutelako. Onartzen da kualifikazio-esparruen onura guztiak jasotzea azken batean zailagoa izan daitekeela haien egiturak garatzea baino, baina nolahi ere haien garapena sustatu nahi da, ikasle, langile eta enplegatzaileentzat egunero errealitate bat izan daitezen hemendik aurrera. Bitartean, zenbait herrialdek zailtasunak dauzkate, batetik, esparru nazionalak amaitzeko, eta, bestetik, 2012ko amaierarako Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren kualifikazioen (QF-EHEA) autoziurtatzea bateragarri egiteko, eta herrialde horiei gomendatzen zaie ahalegin handiagoa egin dezatela besteen laguntza eta esperientzia aprobetxatuz beren helburuak lortu ahal izateko.

Guztiak kualifikazio-esparruen mailak ulertzea funtsezkoa da bai aitortza akademikorako, bai profesionalerako; goi-mailako hezkuntzan sartzeko aukera ematen duten kalifikazioak Europako Kualifikazioen Esparrukotzat (European Qualifications Framework, EQF) hartuko dira, 4 mailakoak edo maila baliokidekoak esparru horri lotuta ez dauden herrialdeetan, non Kualifikazioen Esparru Nazionalak bilduko diren. Lehen, bigarren eta hirugarren zikloko kualifikazioak Europako

Kualifikazioen Esparruko 6. 7. eta 8. mailekin —edo esparru horri atxikitako herrialdeek ezarritako maila baliokideekin— parekatzeko konpromisoa hartu da, eta ziklo laburretako kualifikazioak Europako Esparruaren aldean nola kontabilizatu aztertuko da, esparru nazionalekiko baliokidetasunak ezarriz horrelakoak dauden herrialdeetan. Europako Kontseiluari eta Europako Batzordeari koordinazio-lanetan jarraitzeko eskatzen zaie, kualifikazio-esparru horien funtzionamendu egokia bermatzeko.

Eskertzekoak dira ECTS kredituen, Europako Kualifikazioen Esparruaren eta ikaskuntzaren emaitzen gaineko irizpide argiak, kualifikazio profesionalen aitortzari buruzko Europako Zuzentaraua berrikusteko proposamenean aurki daitezkeenak, eta hori guztia kontuan hartu beharko litzateke aitortzari buruzko erabakietan.

Mugikortasuna indartuz ikaskuntza hobetzeko

Mugikortasuna ikaskuntzan ezinbestekoa da goi-mailako hezkuntzaren kalitatea ziurtatzeko, enplegarritasuna areagotzeko eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren barruan eta haratago lankidetzazabaltzeko. “Ikaskuntza hobetzeko mugikortasuna” (“Mobility for Better Learning”)⁶ eta beste zenbait estrategia hartu ziren eranskin baten antzera, mugikortasunaren helburua barne hartuz goi-mailako hezkuntza osoan nazioartekotze-elementu bat sustatzeko ahaleginen alderdi integral bat den heinean.

Finantza-laguntza funtsezkoa da bidezko mugikortasun-aukerak ziurtatzeko. Horregatik, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan beka edo kredituen erabateko **eramangarritasunarekiko** atxikimendua berretsi zen, eta Europar Batasunari horretarako politikak erabiliz erabateko babesa erakusteko eskatu zitzaion.

Bidezko aitortza akademiko eta profesionala, ikaskuntza formala eta informala barne, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko funtsezko zutabe bat da, zuzeneko eragina dauka ikasleen mugikortasunaren mesedetan, mugikortasun profesionalerako aukerak handitzen ditu, eta lortutako bateratze-maila zehazki neurtzeko aukera ematen du. Horregatik, aitortza eraginkor eta egokiaren kaltetan joan litezkeen oztopoak ahal den neurrian desagerrarazi behar direla erabaki zen, eta gradu akademiko baliokideen aitortza automatizaturako —eta Boloniako Esparrurako tresnak eraikitzeko— ahaleginak bateratzeko borondatea erakutsi zen. Legeria nazionala berrikusteko eta Lisboako Aitortza Konbentziora egokitzeko konpromisoa hartu zen⁷. Europako Aitortza Alorreko Eskuliburua (European Area of Recognition, EAR) ere eskertzekoa da, eta hura erabiltzea gomendatzen da atzerriko kualifikazioen aitortzarako irizpideen eta jardunbide egokien bilduma den heinean. Ildo beretik, goi-mailako hezkuntzaren erakundeei eta kalitatea ziurtatzeko agentziei aitortza instituzionaleko prozesuetan berrikus dezatela gomendatuko zaie.

Goi-mailako hezkuntzaren sistema irekiak lortzeko gogoia ere adierazi zen, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren barruan neurrizko mugikortasuna izango duten sistemak,

alegia. Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko herrialdeen arteko desorekak eramanezinak badira gutxienez aldeetako batentzat, baterako konponbide bat bilatuko da ahal dela, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren Mugikortasun Estrategiarekin bat etorritz.

Goi-mailako hezkuntzaren erakundeei eskatzen zaie **baterako programa eta titulazioak** areago gara ditzatela, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura gehiago hurbiltzeko modua den heinean. Baterako titulu eta programekin zerikusia duten arau eta praktika nazionalak aztertuko dira, testuinguru nazionalen barruan lankidetzeta- eta mugikortasun-oztopoak deuseztatzeko modu bat izan daitekeelakoan.

Munduko beste eskualde batzuekiko lankidetzeta eta nazioartera zabaltzea funtsezkoak dira Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua garatzeko, eta horregatik konpromisoak hartu ziren Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren helburu eta printzipioak globalki ulertzearen bidean jarraitzeko, Ingurune Global baterako Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparru baterako Estrategian (the EHEA in a Global Setting)⁹ bildutako 2007ko lehentasuneko estrategiekin bat etorritz. 2015erako inplementazio estrategikoa garatuko da, nazioarteko garapena areagotzeko irizpideak ematearren. Boloniako Politikarako Foroak elkarriketarako aukera bat izaten jarraituko du, eta, orain arte bezala, bazkide global guztiekin eramango da aurrera.

Datu-bilketa eta gardentasuna hobetzea helburu politikoak sendotzeko

Eskertzekoa da goi-mailako hezkuntzari buruzko datuen eta informazioaren kalitateak hobera egin izana. Datu-bilketa gehiago zehazteko eta adierazle komunekin egiaztatzeko eskatzen da, zehazki, enplegarritasunari, dimentsio sozialari, etengabeko ikaskuntzari, nazioartekotzeari, eta ikasle eta langileen eramangarritasunerako beka edo kredituei dagokienez. Eurostat, Eurydice eta Eurostudent erakundeei 2015erako erreforma eta txostenak eskatu zaizkie.

Ildo horretan, berdinen arteko borondatezko ikaskuntza-sistema bat garatzeko deia egingo da horrelakorik eskatzen duten herrialdeetan, eta hori lagungarri izango da Boloniako erreformen ezarpen-maila ebaluatzeko, eta jardunbide egokiak sustatuko ditu goi-mailako hezkuntzaren zailtasunei bizitasunez aurre egiteko.

Ahaleginak egingo dira goi-mailako hezkuntzaren sistemak ulerterrazagoak izan daitezen, oro har herritarrentzat eta bereziki erakunde horietako ikasle eta langileentzat. Gardentasunerako tresnak hobetzeko laguntza eskainiko da, erabiltzaileentzat intuitiboagoak izan daitezen, ebidentzia enpirikoan oinarrituta. 2015ean irizpide bateratu batzuk edukitzeko akordio bat lortzea da helburua.

2012-2015 aldirako lehentasunak ezartzea

Datozen urteetarako Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrurako helburuak zehaztu ondoren, 2015erako jardun-lehentasun hauek xehatuko ditugu jarraian.

Maila nazionalen eta garrantzizko bazkideekin elkarlanean, bereziki goi-mailako hezkuntzaren erakundeekin:

- Gogoeta sakona egingo da Bolonia ezartzeko 2012ko txostenean adierazitakoari dagokionez, eta txostenaren ondorio eta gomendioak kontuan hartuko dira;
- Sarbidea errazteko eta arrakasta-tasak igotzeko politikak indartuko dira, talde minoritarioen parte-hartzea handitzeko neurriak barne;
- Ikasleengan zentratutako ikaskuntza eta metodologia berritzaileak biltzeko eta ikaskuntza-ingurune inspiratzaile eta solidario bat sortzeko baldintzak ezarriko dira, eta, aldi berean, ikasle eta irakasleak gobernantza-egituretako maila guztietan inplikatzeko ahaleginak mantenduko dira;
- EQAR erregistroan erregistratutako kalitatea ziurtatzeko agentzia guztiei ahalmena emango zaie Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren barruan jarduten jarrai dezaten, betekizun nazionalak betez;
- Enplegarritasunaren hobekuntza, etengabeko ikaskuntza, arazoen konponketa eta ahalmen ekintzaileak landuko dira enplegatzaileekiko lankidetzara hobetuz, bereziki hezkuntza-programen garapenari dagokionez;
- Kualifikaziorako, ECTS kredituetarako eta titulazioak osatzeko esparruak ziurtatuko dira, ikaskuntzaren emaitzetan oinarrituta;
- Ikaskuntza hobetzeko mugikortasunerako gomendioak ezarriko dira, eta aitortzarako EAR eskuliburuaren erabilera sustatuko da;
- Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren barruan, ikerketa eta teknologiarako jakintzaren aliantzen erabilera sustatuko da.

Europar, 2015eko Ministroen Konferentzia prestatuz eta bazkide garrantzitsuenekin elkarlanean:

- Eurostat, Eurydice eta Eurostudent erakundeei eskatuko zaie Boloniako erreformak eta ikaskuntza hobetzeko mugikortasun-estrategia ezartzeko aurrerapenak ikuska ditzatela;
- Berdinen arteko borondatezko ikaskuntza-sistema bat garatuko da, eta, 2013rako, goi-mailako hezkuntzaren dimentsio sozialetik berdinen arteko ikaskuntza sustatzeko proiektu pilotu bat berrikusiko da, horrelakorik eskatzen duten herrialdeetan;
- ESG irizpideen bertsio berrikusi bat hartzeko proposamena egingo da;
- Hirugarren zikloan kalitatea, gardentasuna, enplegarritasuna eta mugikortasuna sustatuko dira, eta, aldi berean, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren eta Europako Aitortza Alorraren arteko loturak ezarriko dira;
- Ahaleginak egingo dira ziurtatzeko ECTS kredituen Erabiltzailearentzako Gidak ongi islatzen duela zertan dauden ikaskuntzaren emaitzen gainean eta alde zuzeneko ikasketen aitortzaren gainean garatzen ari diren zereginak;
- Kualifikazio-esparruak bete egiten direla ziurtatzeko zereginak koordinatuko dira, ikaskuntzaren emaitzekin duten lotura azpimarratuz, eta Goi-mailako Hezkuntzaren

Europako Esparruak (QF) bere testuinguru nazionalen barruan kualifikazio-ziklo laburragoak kontuan hartzeko zer egiten duen ikertuz;

- Baterako zereginak bultzatuko dira titulazio baliokideen aitortza akademikoa nola automatiza daitekeen bilatzen duten herrialdeen artean;
- Legeria nazionalak eta baterako programa eta titulazioekin lotutako praktikak berrikusiko dira, testuinguru nazionaletan lankidetzaz eta mugikortasunerako oztopo guztiak deuseztatzeko;
- “Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Estrategia ingurune global batean” estrategiaren ezarpena ebaluatuko da;
- Gardentasun-politikak sortzeko jarraibideak garatuko dira, eta lehendik dauden edo sortu berri diren gardentasunerako tresnak ikuskatzeko lanari jarraipena emango zaio.

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko ministroen hurrengo konferentzia Erevanen izango da, Armenian, 2015. urtean, eta hemen bildutako lehentasunetan egindako aurrerapenak aztertuko dira bertan.